



## **gizarte zerbitzuak**

### **ESKORIATZAKO UDALAREN ETA JOSE ARANA FUNDAZIOAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA LAGUNTZA GAUZATAN (UR HORNIDURA) EMATEKO**

2023GDIR0001

#### **BERTARATURIK**

Alde batetik,

**ESKORIATZAKO UDALA** (helbidea: Fernando Eskoriatza Plaza 1, 20540 Eskoriatza; IFK: P2003500B), JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRIAK, alkate-udalburuak, ordezkaten duena.

Eta, bestetik,

**JOSE ARANA FUNDAZIOKO PATRONATUA** (helbidea: *Gaztañadui Kalea 24, 20540 Eskoriatza*; IFK: G20177614), AITOR ZUBIZARRETA ALEGRIA jaunak, adinez nagusia eta 16.233.639-D NAN duenak, behar bezala ordezkaten duena.

#### **ADIERAZTEN DUTE**

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17. artikulua ematen dizkion eskumenen barruan, Eskoriatzako Udalaren helburua da gizarte-zerbitzuen garapena sustatzea, oinarrizko beharrian pertsonal eta sozialak beteta gizarte-justizia eta gizarte-ongizate esparru batean bizitzeko pertsonen duten eskubidea bermatzeko.

Jose Arana Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta bere ondarea interes orokorreko helburuak betetzera lotuta dago modu iraunkorrean. Fundazioaren helburua da adinagatik, inguruabar ekonomikoengatik, familiakoengatik edo bestelakoengatik fundazioak garatzen dituen laguntza- eta zaintza-zerbitzuak behar dituzten pertsonen laguntza ematea.

Eskoriatzako Udalak aitortu eta baloratu egiten du Fundazioak Eskoriatzan hirugarren adinekoen egoitza kudeatzen egiten duen jarduerara, horrelako lana Eskoriatzan egiten duen erakunde bakarra baita. Badaki, halaber, zerbitzu duin eta eskuragarria emateko ahalegin ekonomikoa egiten ari dela, bai eta erabiltzaile askok fundazioaren zerbitzuak eskuratzeko izango lituzketen zailtasun ekonomikoak ere administrazioek fundazioaren helburuekin laguntzen ez badute eta modu aktiboan inplikatzeko ez badira. Hori dela eta, fundazioarekin lankidetzan aritzearen alde agertu da Eskoriatzako Udala, mendekotasun-egoeran dauden edo ez dauden adinekoek Jose Arana Fundazioak kudeatzen duen egoitzako plazak eskura ditzaten laguntzeko.

Alde batetik, Fundazioak ezinbestekotzat jotzen diren hornidura batzuk behar ditu zerbitzua modu egokian emateko, eta horien artean dago ur-hornidura. Hornidura horrek zama ekonomiko handia dakar fundazioaren jardueran, eta hortik askatzeak bere zailtasun ekonomikoak arintzen lagunduko luke.

Bestalde, dirulaguntzen arloko lege-araudiak, funtsean azaroaren 17ko 38/2003 Legean jasotakoak, ezartzen du hitzarmenak izango direla toki-korporazioetan dirulaguntzak bideratzeko ohiko tresna.

Era berean, Jose Arana Fundazioa Eskoriatzan adinekoei arreta ematen dien erakunde bakarra da, eta, beraz, Eskoriatzako Udalarekin lankidetzaren esparru bat lortzeko prest dago. Posizio berezi horrek eta Hitzarmenaren berezko ezaugarriek justifikatzen dute laguntza zuzenean ematea, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 28. artikuluan jasotakoari jarraiki.

Bere aldetik, aipatutako lege testuaren 5. xedapen gehigarriak "gauzatan emandako laguntzak" arautzen ditu, eta bigarren atalean esaten du Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorra aplikatuko zaiela "ondasunak, eskubideak edo zerbitzuak emateko laguntzei, betiere, horiek hirugarren bati emateko helburu bakarrarekin eskuratzen baldin badira". Udalak, ur-horniduraren kasuan, erabaki du fundazioari ez ordaintzea laguntza eskudirutan, eta, horren ordean, kontsumitzen duen ura ematea. Aukeratutako formulak gastu publiko txikiagoa dakar udalaren diru-kutxarentzat, Udalak, Gipuzkoako Ur Kontsortzioko kide den aldetik, % 80ko hobaria baitu berak kontratatutako kontsumoetan.

Aurrez esandakoarengatik, alde biak egokitzat jotzen dute Hitzarmen hau sinatzea ondorengo baldintzen arabera.

## ATARIKOA

2020ko martxoaren 17an, Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen, eta Udalbatzarrak 2022ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez eguneratu dago. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako hirugarrena "gizarte ekintza" izenekoa da.

Ildo horren M lerroa Jose Arana patronatuari dirulaguntza ur hornidura-sarea egokitzeko da. Helburua ur horniduraren eta sarearen egokitzapena egitea da ur-kontsumoa irakurri ahal izateko.

## BALDINTZAK

### **LEHENA. Hitzarmenaren helburua.**

Hitzarmen honen helburua Eskoriatzako Udalaren eta Jose Arana Fundazioaren arteko lankidetzaren arautzea da, azken horrek kudeatzen duen egoitzak hirugarren adinekoei zerbitzu duina eta kalitatezkoa emango diela berma dezan.

### **BIGARRENA. Hitzarmenaren finantzazioa.**

Eskoriatzako Udalak, 2023ko aurrekontu-ekitaldiaren kontura, ondorengo dirulaguntza ematen dio zuzenean Fundazioari:

- Gauzazko laguntza bat, urtean gehienez 2.000 euroko ur-horniduran gauzatzen dena. Eman beharreko laguntzaren zenbatekoak, guztira, ez du gaindituko adierazitako kontsignazioa edo, indarrean dagoen legeriaren arabera aurrekontu-aldaketak onartzen badira, zenbateko hori eguneratzean ateratzen dena.

### **HIRUGARRENA. Indarraldia.**

Hitzarmen honek 2023ko abenduaren 31ra arteko indarraldia izango du.

### **LAUGARRENA. Jose Arana Fundazioaren betebeharrak.**

- 1.- Adinekoei kalitatezko zerbitzua eskaintzea, gizarte-zerbitzuen zorroan ezarritako baldintzen arabera.
- 2.- Indarrean dagoen araudia eta jarduera garatzeko beharrezkoak diren segurtasun eta higiene neurriak zaintzea eta betetzea.
- 3.- Uraren kontsumo arduratsua egitea. Hori ziurtatzeko, ordainagiritan ur gehiegi kontsumitzen dela antzematen bada, jakinarazi egingo zaio dagozkion neurriak har ditzan eta, horrela, laguntza hori emateko esleitutako aurrekontu-partida garaiz baino lehen agortu ez dadin.

4. Hitzarmena sinatu aurretik eta, gero, diru laguntza ordaindu baino lehen, ERAKUNDE ONURADUNAK egunean izan beharko ditu zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.

**BOSGARRENA. Eskoriatzako Udalaren betebeharrak.**

1. Fundazioak kontsumitutako uragatik 2023an jaulkitako ordainagiriak ordaintzea, 2.000 euroko mugarekin. Muga hori handitu ahal izango da, alderdiek hala adosten badute eta indarrean dagoen legeriaren arabera izapidetzen bada aurrekontu aldaketa.
2. Udalaren dirulaguntza bateragarria da erakunde onuradunak helburu bererako lor ditzakeen beste dirulaguntza edo laguntza publiko edo pribatuekin, betiere, dirulaguntza horiek, udal dirulaguntzarekin batera, ez badute inolaz ere gainditzen benetan justifikatutako gastuaren zenbateko osoa.
3. Jasotako laguntzek edo dirulaguntzek, denak kontuan hartuta, benetan justifikatutako gastuaren zenbatekoa gaindituko balute, Udalaren ekarpena murriztu egingo da aurreko puntuan ezarritakoa betetzeko behar besteko kopuruan.

**SEIGARRENA. Jarraipen batzordea.**

Bi alderdiek beharrezko koordinazio eta lankidetzaz mailari eusteko konpromisoa hartzen dute. Horretarako, jarraipen batzorde bat sortuko da, alderdietako bakoitzak izendatuko dituen kideek osatua. Honako hauek dira:

- Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi arduraduna.
- Gizarte langilea.
- Jose Arana Fundazioaren Patronatuko lehendakaria.

**ZAZPIGARRENA. Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak.**

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak izango dira, hirugarren baldintzan indarraldi gisa ezarritako denbora igarotzeaz gain, alde bakoitzaren betebeharrak ez betetzea eta horretarako gaitutako aurrekontu-izendapena agortzea. Hitzarmena suntsitzeko, dagokion aldeak, gutxienez hilabete lehenago, salatu beharko du besteak ez duela hitzarmena bete. Justifikaziorik gabeko suntsiarazpenak edo, hala badagokio, hitzarmeneko betebeharrak ez betetzeak, dagokion kalte-ordaina ekarriko du.

**ZORTZIGARRENA. Jurisdikzio eskuduna.**

Hitzarmen hau sinatzen duten alderdien artean sor daitezkeen auziak, Jarraipen Batzordeak erabakitzen ez dituenak, erabakitzeko eskumena administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du.

**BEDERATZIGARRENA.** Hitzarmen honetan aurreikusi gabekoari dagokionez, toki-araubideari buruzko araudian, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 3872003 Lege Orokorrean edo hura ordeztzen duen araudian eta udal honek dirulaguntzen arloan duen erregelamendu-araudian xedatutakoari jarraituko zaio.

**Eta ados daudela adierazteko, bertaratuek agiri hau sinatzen dute goiburuan adierazitako leku eta egunean.**

UDALEKO ALKATEA,

JOSE ARANA PATRONATU FUND. LEHENDAKARIA,